

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/10/1 | 370

- Txomin Garmendia eta Antton Izagirre
- Normalizazioa: Kike Amonarriz
- Xabier Amuriza
- Zintizlik: Android euskaraz!
- Galtzakomik, Euskal Herrira zabalik

## Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?



Iñaki Arratibel eta Iñaki Kruzeekin solasean

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

**TOLOSA**  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40

**VILLABONA**  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



soluzio argiak

Mitina  
Xabier Isasi  
eta  
Pello Urizar

Urriak 10, asteazkena  
Beotibar Frontoian  
19:00etan



Korreo bidezko botoa emateko: larunbata 6, 9:00etatik 13:00etara.  
Astelehena 8, Asteartea 9, Asteazkena 10, 18:00etatik 20:00etara. Tolosako Alkartetxean

nonzer



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia,  
Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



kutxa gizarte ekintza

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



### Erreportaia: Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?

Galtzaundi Euskara Taldeak kafe-tertulia baten aitzakian hainbat eta hainbat norbanako bildu zituen iragan irailaren 21ean, "Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?" galderari erantzun eman nahiarekin. Zitak bere ihardespena izan zuen. Jarduerak Kontseiluak deituriko "Euskaraz bizi nahi dut" ekimenarekin bat egin zuen.

8-11. orrialdeak

Tolosa CFn eta Tolosaldeko Arraun Klubean (TAK) euskararen erabilpena sustatzeko hitzarmenak sinatu dituzte Tolosa CFko lehendakari Iñaki Arratibelek eta TAK-eko ordezkari Iñaki Kruzek Tolosako Udalarekin eta Galtzaundi Euskara Taldearekin. Sinatutako hitzarmena eta bi klubetako errealitatea izan dituzte hizpide, besteak beste, ondoko elkarriketan.

14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Antton Izagirre	4-5
6	Normalizazioa: Kike Amonarriz	6-7
6	Eskualdeko albistea: Xabier Amuriza	12
6	Zintzilik: Android euskaraz!	17
6	Kultura: Galtzakomik, Euskal Herrira zabalik	18
6	Kultura: Nestor Basterretxea Durangoko Azokaren kartelaren egile	19

NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA

DIETA PERSONALIZATUAK  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
ARIKETA FISIKOA  
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,  
5 B - 2º ESKUBIA  
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO  
HITZORDUA  
679 934 888

AMAIA ETXETXIPIA  
"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturatua

**SUPER EKO**  
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera  
eramateko zerbitzua



Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa

**Autobusa**  
**bidaiak gozatu**  
**... eta beste guztia guri utzi**

Kontaktua: info@autocares-azpurua.es - Tel.: 943 36 32 90 - www.autocares-azpurua.es



Autobusa  
Nafarroa Oinez 2012  
urriaren 21ean, Zizur Txikia

Salneurria: 12 € (bazkideak 10€)  
Irteera: goizeko 9:30ean Tolosako zezen plazatik  
Itzulera: 19:00etan  
Izen ematea Galtzaundiko egoitzan



**Txomin Garmendia**  
Bertsolaria

- 1- Urriak ogeita bat degu igandea, botoa ematera joateko jendea. Bat izan leike duke, bestea kondea; danan gustorik ez da izango ordea.
- 2- Bakoitzak bere alde ekinen lanari, erreparatuz noski errian onari. Botoak izan bitez garbi ta ugari; da geien dituana jarri Lendakari.
- 3- Lengo Auteskundetan egin zan itsusi, bi partidu alkartuz bototan nagusi. Da geien zituana bazterrera utzi; euskaldunak ez gendun ori erakutsi.

4- Egin zan tratu arek arriturik danak, berriro asarretuz len ala ziranak. Gaur danan bistan daude gertatu diranak; orrek ekarri ditu aurreratze lanak.

5- Danok agindu naia au da iskanbilla, jendea gogor dabil botoaren billa. Lendakari nai degu jakintsu-umilla; errian onerako gertatu dedilla.

6- Erri bat berezia degu euskaldunak, naiz asko baditugun kontra dauzkagunak. Izkuntz eta oiturak da beste jardunak; gu gerade gurea eskatzen degunak.

7- Erri txikia baiño aundia izenez, munduan zabaleran ezagun gaudenez. Kirol saillean edo langilletasunez; jendea arritzen da gure nortasunez,

## Urria 21'an

8- Beti etziran eroso gure aurrekoak, aiek ziran euskaldun lege zarrekoak. Beren griñak ziraden beti lanekoak; guregan pentsatuaz biotz onekoak.

9- Garai baten nork esan gaurko pentsaera? Berrogei bat urtean Frankoren mendera. Naiz urruti daukagun guk nai degun era; alkar errespetatuz iritsiko gera.

10- Ez dezagula etsi etorkizun ezan, indartu gindezkenak alkarren babesean. Gure ondorengoak modu andrebesan; "erri bat izan zala" ez dezaten esan.



## Guk ere bai

Kasu honetan ere, iragarritako ezetza abiatutako bidearen amaiera baino bide egokia hartu izanaren baieztapena dela iragarriko nuke. Independentzia lortzeko bidean herritarrak eta iritzi publikoa bestelako saltsatan nahastu eta amaierarik gabeko negoziazio karamilatsuetan entretenitua mantentzea baino askoz onuragarriagoa deritzot ezetza hain garbi jaso izana, etorkizunean eginbeharrereko apustuak garbiago egiteko aukerak eskaintzen dizkielako.

Kataluniar erakundeetako ordezkariak eta independentziaren aldeko eragileek egin dute aukera ausarta izateaz gain, arriskutsua ere bada. Epe motzeko urrats gisa planteatu izanak indarrak metatzeko aukera eskaintzen die, baina herri interesak alboratuz alderdi eta indar ekonomiko zenbaitek urak bere errotara desbideratzeko hautua egingo balute, urteetako lanaren poderioz lortu duten batasuna, atxikimena eta mugimendu independentistaren barne oreka politiko hauskorra arriskuan jarriko lukete.

Ez dago inongo zalantzarik Estatu Espainoleko aparatatu politiko, ekonomiko, militarrek zatiketa eragiten ahaleginduko direla eta asmo horretara zuzenduta beren indar faktiko guztiak dagoeneko martxan jarri dituztela: hasi komunika-

bideetatik, botere ekonomiko-politikoekin jarraitu, europar diplomazia astindu eta behar balitz, militarrei ere aipamena eginez. Azken egun hauetan espainiar esparruko komunikabide desberdinek egin duten presio mediatikoa, diplomazia europarrak egin dute erabilera interesatua edo espainiar errege Borboia bera ere ez dagokion iritzia ematera atera izana, horren guztia- ren adibideak dira.

Espainiar buruzagien ezetzaren ondoren, orain berriro pilotak kataluniar erakundeen eta herri eragileen teitlatuan jarraitzen du. Zein izan behar du hurrengo urratsa Diadan lortutako legitimitatea eta gizarte atxikimena bateraturik eusteko? Erantzukizun handiko atakan aurkitzen da Kataluniar herria baina iritsi diren puntura iritsita, inor gutxik ulertuko luke atzera egin eta berriro interes elektoralista zenbaiten harira, independentziaren aldeko urratsak gerorako atzeratzea. Katalunia ere, aro politiko berrian kokatu da eta aro horrek independentziaren aroa behar du izan.

Guk inbidiaz diogu, Euskal Herrian dauden borondarte independentistak neurri berean biltzeko gaitasunik izan ez dugulako. Hemen, urtetan, indarkeriaren aitzakiapean independentziaren aldeko jarrera ausartagoak estali izan dira. Egundak, aitzai-



**Antton Izagirre**  
Irakaslea

Egia esan behar badut, Kataluniaren Diada egunean kaleetan erakutsi zuten aldarriak inbidia eta miresmena sortzen dit. Gai izan dira elkarren arteko desberdintasunak gerorako utzi eta elkaturik ahots bakar batez hitz egiteko eta horrela izan delako entzunak izatea lortu dute Estatu Espainoleko gorengo estamentuetan; nahiz eta, espero zitekeen modura ezezko borobila jaso.

kia hori amaitu den arren, orduan indarkeriarik gabe ideia guztien zilegitasuna aitortzen zutenek, orain abenturatzat dute libreki determinatzeko eskubidea. Orduan hautua gerorako uzten zutenek, gerorako uzten jarraitzen dute. Orduan borondate demokratikoaren gainetik Espainiaren banaezintasuna militarren esku uzten zutenek, gauza bera egiten jarraitzen dute.

Hala eta guztiz ere, garbi dago Euskal Herriaren testuinguru politikoa alda-

tzen ari dela, garai politiko berriak aukera handiak zabaldu dituela euskal politikagintzan. Posizio politiko inobilistek Euskal Herria ere bere horretan iraunarazi nahi dute baina aitzakiak jausi dira, gezur bera gaur ez da sinesgarria euskal gizartean.

Eskoziak epe laburrean gauzatuko duen erabakitze ariketa bera, berandu baino lehen Kataluniak ere aurrera eramango du eta Euskal Herria ere ez da atzera gertatuko.







# Kike Amonarriz

## “Ez ezazue arazo bezala ikusi, aukera bezala ikusi ezazue”

Kike Amonarriz soziolinguista tolosarrak, “Euskaraz ez badakigu, umeei etxerako lanekin nola lagundu?” hitzaldi-tailerrean erantzunak eta laguntza eskaintzeaz gain, gurasoei beraiei eman nahi die hitza. Izan ere, tailerrak gurasoek azaldutako kezka eta galderetan izango du abiapuntua.

**Kike Amonarriz soziolinguista guraso erdaldunei zuzenduriko hitzaldia eskainiko du datorren urriaren 4an, ostegunean, arratsaldeko 18.00etan, Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. Hitzaldi-tailerrak guraso erdaldunei laguntzeko xedea du, seme-alabei etxerako lanekin nola lagundu azalduz.**

Erredakzioa

Kike Amonarriz soziolinguista tolosarrak, “Euskaraz ez badakigu, umeei etxerako lanekin nola lagundu?” hitzaldi-tailerrean erantzunak eta laguntza eskaintzeaz gain, gurasoei beraiei eman nahi die hitza. Izan ere, tailerrak gurasoek azaldutako kezka eta galderetan izango du abiapuntua.

**Egin beharreko lehen galdera hitzaldiaren izenburuak luza-tutakoa; Euskaraz ez badakigu, umeei etxerako lanekin nola lagundu?**

Azken urtetan honako hitzaldia oso gutxitan eman dut, beste eginbideak direla medio aukerarik izan ez dudalako. Baina Euskal Herrian zehar gai honen inguruan ehun bat hitzaldi emanda nago. Hitzaldia medio batez ere bi kontuez ohartzen zara; batetik, guraso erdaldunen artean dauden kezkek oso zehatzak direla normalean eta

gutxiegitan, esplikatu, azaldu, eztabaidatu eta lasaitu ditugula guraso erdaldunak dauzkaten kezka horien inguruan. Kezkek normalean etxeko lanetan ea nola lagundu dezaketenen ingurukoak izaten dira. Azaldu beharra dago etxeko lanak zer diren, etxeko lanen inguruan etxeetan zer egin behar den, zer egin daitekeen, zer den garrantzitsua eta zer ez...

Eta bestetik, mahai gainean jarritako beste kezka ondorengo izaten da: ea dakiten euskara apur hori erabiltzea ona den edo ez. Batzuk euskaraz badakite zer edo zer, badakite ondo ez dakitela eta ez dakite hori erabiltzea ona den edo ez. Honako kasuetan gainera askotan gurasoek sumatzen dute haurrek ez dietela erabiltzen uzten. Gai ugari azaltzen dira: kezkek, arazo puntualak, erabileraren inguruan batzuk, jarren inguruan besteak, etorkizunari begira besteak...

Hitzaldi honen helburu nagusia, guraso erdaldunei haurren euskalduntzearen inguruan haiek asko egin dezaketela adieraztea da. Eta bigarren helburua, beraiek arazo gisa baino aukera modura ikusi behar dutela bizi duten egoera. Alegia, gurasoak konturatu behar dira motibazioaren aldetik asko egin dezaketela eta gainera, haurren bitartez eta haurrekin batera asko ikasi dezaketela. Haurra txikia denetik planteatzen zaien aukera gisa ikusi behar dute; hizkuntza

egoera hobetzeko, baina baita ere, guraso eta haurren arteko harremana hobetzeko. Alegia, askotan hizkuntzaren erabilera berak, hizkuntzaren bidez laguntza ematea berak, etxe barruko eta familia barruko giroa hobetzen ere laguntzen du. Adibidez, haurra bera irakasle lanetan jartzea gurasoei euskara irakasteko.

Azken finean, atera beharreko konklusioa ondorengo da: ez ezazue arazo bezala ikusi, aukera bezala ikusi ezazue.

**Zer nolako dinamikan garatuko da hitzaldia?**

Lehenengo gauza zer galderak dakartzaten galdetzea izaten da eta ondoren, galdera horiek erantzutea. Normalean galderak gai berdinen arabera planteatzen dira eta galdera diferente bat planteatzen bada, horri erantzuten saiatu beharra dago, erantzuteko modua bilatzen.

Kasu honetan, guk erantzunak eman baino, guretzako ere oso garrantzitsua da zer nolako arazoak dauzkaten entzutea. Askotan galdera horiek existitzen ez diren lekuetara erantzun aurrefabrikatuekin joaten garelako. Umiltasunetik egindako hitzaldiak dira eta hitzaldi hauek daukaten gauzarik interesenetakoa galderak zeintzuk diren jakitea da. Askotan jendeari ez baitiogu galdetzen zer jakin nahi duen edota zer nolako kezkek dituen.

**Gaiari jarraika, hitzaldia gaztelaniaz eskainiko da. Bati baino gehiagori arraroa egingo al zaio euskara elkarte batek antolatutako hitzaldia gaztelaniaz izatea?**

Euskara talde batek biztanleria osoari begira lan egin behar du, nahiz eta bere ohiko hizkuntza bakarra euskara izan. Euskara talde batek ere jakin behar du salbuespenak noiz egin. Kasu honetan oso garbi ikusten da salbuespena zergatik egiten den eta zertarako. Hitzaldia ez da erabat erdaraz izango. Hori da abiapuntua; jendeari esan behar zaio inor ez dagoela Euskal Herrian euskara zero dakienik ezta euskara %100ean dakienik ere.

**Hitzaldia 2005ean eskaini zenuen lehenengoz Zaldibarko eskolak eskatuta, urte hauetan gurasoen profila aldatu al da?**

Tolosan asko aldatu da. Nik uste gaur egun guraso gazte erdaldun huts oso gutxi dagoela, ez bada Euskal Herritik kanpo etorritakoa. Helduagoen artean datuek gora egingo dute. Zer nolako jendea biltzen den, galderak ere diferenteak izango dira. Ez da gauza bera, demagun Euskal Herrian jaio eta euskaraz ez dakiten edo oso gutxi dakiten euskaldunei hitz egitea edo kanpotik etorritako gurasoei hitz egitea. Galderak oso beste-lakoak izaten dira. Saiatzen gara hitzaldi bakoitzean informazioa egokitzten dauden gurasoen arabera.



**Aretxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel: 943 673 118 Tolosa

**IGO**

Karga eta goi lanetarako grua

[www.igogrua.com](http://www.igogrua.com)  
Mobil zkia. 670 67 24 62

euskararen semaforoa  
[euskararensemaforoa.blogspot.com](http://euskararensemaforoa.blogspot.com)

Errotulazioa & inudia  
**Vicente**  
[www.rotulosvicente.com](http://www.rotulosvicente.com)

943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Lasibar bialara 25, 1-04 atea  
20271 Iruia (Gipuzkoa)



# Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?

Galtzaundi Euskara Taldeak kafe-tertulia baten aitzakian hainbat eta hainbat norbanako bildu zituen iragan irailaren 21ean, "Euskarak Tolosan zertan egin du aurrera?" galderari erantzun eman nahiarekin. Zitak bere ihardespina izan zuen. Ondorengo lerroetan zerrendatzen dira jasotako iritzi ezberdinak. Jarduerak Kontseiluak deituriko "Euskaraz bizi nahi dut" ekimenarekin bat egin zuen.

Naiara Roldán de Aránguiz

Udazkenari ongiatorria emateko eguna, irailaren 21eko, baina giroak bestelakoa erakutsi zuen, egun argitsu eta eguzkitsua benetan larunbatetako. Eguzkiaren berotasunak bidelagun kafe-tertuariaren bueltan bildutako norbanakoak ere sutsu aurkeztutako gaiari erantzuna emateko.

Giroak lagunduta, kafe-tertulia pintxo-pote-tertulia bi-

lakatu zen, goizeko 11.30ean hasitako zita. Izan ere, hiru mahaietan antolaturik ekimenean parte hartutako bi dozena lagunei hamaiketako egiteko eta euskararen arloan mintzatzeko tresnak ahalbidetu zitzaizkien.

Gunea, Tolosako Zerkausiarren goiko solairua. Tolosako postala dena eta merkatuaren kokagune, euskararen gune.

Pako Aristi idazle eta kazetariak ere horrela identifikatu berri du Tolosako Zerkausia: "belarria ederki gozatzen da Tolosako azokan". Elementu hauek kontutan hartuta, Galtzaundi Euskara Taldeak merkatu gunea iritziak emateko gunea bihurtu zuen.

**Hiru mahai, hiru gai**  
Tertuliaren dinamika hiru

mahaien bueltan antolatuta zen. Mahai bakoitzean, dinamizatzaile batek gidatuta 15 minututan taldeak galdera bati erantzuna eman beharra. Ordu laurden hori igarota -jendearen partaidetza kontutan hartuta luzatzea erabaki zena-, talde bakoitza mahaietara aldatu zen galdera berri bati erantzun asmoz. Jarduera amaitzerako talde bakoitzak ondorengo hiru galderari erantzuna eman zien: "Tolosan euskarak zertan egin du aurrera?", "Eguneroko bizitzan euskaraz egin ahalko zenukeen zein eremutan ez duzu egiten euskaraz. Zergatik?" eta "Euskararen erabilera zertan eta zein eremutan hobetu beharko litzateke?".

Lehenengo galdera dinamizatzen Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendari den Mikel Uzkudun aritu zen. "Tolosan euskarak zertan egin du aurrera?" galderak erantzun ugari jaso bazituen ere, Uzkudunek horrela laburbildu zuen hizketaldiaren fruitua: "bi ideia nagusi ateratu dira; gazteen jakintza aldetik ikaragarri aurreratu dugula, eta erabilera aldetik, bipolarizazioa eman bada ere, gaur egun badaudela gazteak era-

bat euskaraz ari direnak eta erabat euskaraz bizi direnak. Eta bestetik, nahiz eta euskal jakintza izan erabilera aldetik gabezi dezentea egon badagoela".

Mikel Uzkudunen mahaiari jasotakoaren arabera, bigarren ideia nagusia ondorengo aurkeztu zen: "gaur egun Tolosan erabat euskaraz funtzionatzen duen jendea badagoela. Erabat euskaraz ari dena, goizean jaikitzen denetik gauean oheratzen den arte. Lehen ez zegoen horrelakorik, beti etenak egoten ziren, lanean gaztelaniaz ari ziren edo lagun artean ez dakit nor zegoelako gaztelaniaz aritzen ziren. Baina gaur egun badago gizarte zati bat, goizean jaikitzen denetik euskaraz ari dena, lanera joaten denean euskaraz ari dena, lagun artean euskaraz aritzen dena eta berriro etxera joaten denean euskaraz ari dena. Hori orain arte ez zegoela eta orain badago".

Bigarren mahaiaren dinamizazioa, Joseba Antxustegiartek, Galtzaundi Euskara Taldeko zuzendaritza batzordekideak bete zuen. "Eguneroko bizitzan euskaraz egin ahalko zenukeen

zein eremutan ez duzu egiten euskaraz. Zergatik?" hausnarketa luzatu zen Antxustegiartek gidatutako mahaiari. Joseba pozik azaldu zen mintzakeraren parte-hartzearekin, zenbait puntuetan parte-hartzaileek bat egin zutela ere aurreratu zuen: "gure mahaitik pasa diren hiru taldeak bat etorri dira gauza batzuetan, ez guztietan, hori aztertu daiteke eta etorkizunean lantzeko edo aztertzeko har daiteke".

Joseba Antxustegiartek jasotako erantzunetako batzuk ondoren zerrendatutakoak dira: "erdaldun bat dagoenean, bikotea erdaldunarekin, euskaraz azaltzeko gai ez garenean, ulergarritasun arazo dagoenean...". Aipatu egoera hauetan guztietan beste hizkuntzek euskarari aurrea hartzen diotela zehaztu zuten parte-hartzaileek. Horretaz gain, elebidun sistema ere gaitzetsi zuten bildurikoek ondorengo iritziak medio: "zaila da batek euskaraz eta besteak gaztekeraz; elebidun sistemak luzera gaztekerara garamatza". Azken ideia honen adibide gisara ikastetxeetako guraso bilerak aipatu ziren. Euskaraz presentzia gutxiago duen bestelako

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176

**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

**gizarte kutxa**

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



alorrak kirola, iseka eta irainak, funtzionarioak –medikuak, udaltzainak, ertzainak...- eta herriko zenbait denda eta taberna aipatu ziren.

Aurkeztu berri diren egoera ezberdinei erantzuna emateko ardura Galtzaundi Euskara Taldeak ere baduela uste du Joseba Antxustegiartek: "nolabait Galtzaundik har ditzaken lanak izan daitezke.

iritziak gazteek esaten dutenarekin kontrastatu behar dira, gazteak egiteko prest daudenekin".

Hirugarren eta azken mahairen gidaritza Igor Mujikak, Galtzaundi Euskara Taldeko koordinatzaileak hartu zuen. "Euskararen erabilera zertan eta zein eremutan hobetu beharko litzateke?" galderari erantzuna ematea zen

dira; funtzionarioak euskara jakin behar izatera derrigortu behar dira; hausnarketa soziolinguistikoak egin behar dira; euskaldunak dituzten eskubi-deen inguruko kanpaina egin behar da; eskolatik kanpo eragin beharko litzateke eta gurasoen artean motibazio saioak egin".

Tolosara zehazki etorrira, Zerkausian bildurikoek behar

beharra zuten herritarrek. Euskara ardatz, herrian nahiz Galtzaundi Euskara Taldean zer egin, nondik jo,... jakiteko baliagarria izan da kafe tertulia. Iritziak jasotzeaz gain, proposamen ezberdinen inguruan hitz egiteko eta eztabaidatzeko tarterik ere izan dugu. Herritarrei, euskaltzaleei, entzutea, edozein euskara elkarteren lehen zeregina

ere horretarako, nahiz eta bertan elkartzaren garenok oso motibatuta egon, oso euskaltzaleak izan, euskararen alde lan egiteko beti buru-belarri prest egon, beti ere interesgarria da elkartzea eta bakoitzak bere kezak eta esperientziak azaltzea".

Uzkudunek aitortu bezala, parte-hartzaileen artean Tolosako euskaltzale aurpe-

batean tratatzeko aukera ez daudenak tratatzeko bidea ematen du".

#### Etorkizunari begira

Galtzaundi Euskara Taldeak antolaturiko tertulia honek bidea eman du egungo Tolosako euskararen egoeraren inguruan datu gehiago izateko eta baita etorkizunari begira ere, egin beharrekoen



Kontua da Galtzaundik hori dinamizatu behar duela, dinamizazio horretan kontatu beharko lukeela bere bazkideekin eta jende gazteagoarekin; prozesu baten maila bat da".

Izan ere, tertulia honetan bilduriko mintzakide guztiak helduak ziren, 40 urtetik gorakoak eta %85ean gainera gizonezkoak. Aurrerantzean Galtzaundi Euskara Taldearen erronketako bat parte hartzaileen perfla zabaltzea izan beharko da. Honela, ideia honi jarraiki, aurretik esandakoari eutsi zion Galtzaundiko zuzendaritza batzordekideak: "hemengo

hirugarren mahaiaren egin beharra.

Jasotako erantzunak anitzak; zehatzak zein orokorrak; herriari, eskualdeari zein Euskal Herri osoari begirakoak. Jarraian hirugarren mahian aztertutako batzuk jasotzen dira: "arnas guneak indartu behar dira; euskaldunak sortu baino, euskaltzaleak sortu behar ditugu; euskaldunen nortasuna indartu beharra dago; euskarazko komunikabideak indartu behar dira, baita bailarako komunikabideak ere; erdaldunei euskara ikasteko beharra sentiarazi behar zaie; euskaldun erreferenteak bultzatu behar

rezkotzat jo zuten hirugarren sektorean eragitea euskararen erabilerari dagokionean. Eta proposamen guzti hauen aurrean, Joseba Antxustegiartek ere esan bezala, Galtzaundiren eginbeharren norabidea zehaztu egiten da: "Galtzaundik euskaltzaleak bildu, diskurtso bat landu eta eragin behar du", adierazi dute tertulia hausnarketa saio honetako parte-hartzaileek.

#### Balorazioa

Gauzak honela, Igor Mujikak ideiarekin bat egin eta honakoa gaineratu nahi izan du tertuliaren balorazio gisara: "hitz egiteko gogoia edo

izan beharko lukeela uste dut eta, horregatik, euskaltzaleen iritziak, proposamenak,... entzuteko eta jasotzeko halako foroak gehiagoetan egin beharko ditu Galtzaundik. Giro ona eta elkarrekiko errespetua ardatz, ez da zaila izan herritarren gogoetak sustatzeko".

Mikel Uzkudunek ere balorazio positiboa aurkeztu zuen ekimenaren amaieran: "dudarik gabe balio dutela tankerako ekimenek. Azkenean, euskararen inguruan egiten diren hainbat hausnarketa, ekimen, mahai-inguru, tertulia... euskarari bultzada bat emateko balio dute. Gaurkoak

gi ezagun ugari bildu ziren –Aitzol Udal Euskaltegiko irakasleak, hezkuntza munduko ordezkariek, politikariak, Tolosa Kantari ekimeneko partaideak, eta abar luze bat-. Tartean Kike Amonarri soziolinguistaren hitzak ere entzun ziren: "interesantea izan da. Ideia politak atera dira eta eztabaidarako nahiko izan da. Inposizioa, erakargarritasuna, euskaltzale izatea zer den, praktika pertsonalaren inguruan aritu gara. Interesantea izan da iritziak mahai gaineratzea eta kontrajartzea. Formatu honek eztabaida lasai bat ahalbidetzen du, giro onean, beharbada eztabaida serio

zerrenda osatzeko. Eginbeharreko horien bultzatzaileetako bat Galtzaundi Euskara Taldea izan behar denaren ideiaz jakitun ondorengoak gaineratu dituzte Joseba Antxustegiartek eta Igor Mujikak, hurrenez hurren."Bideak markatuko digu nora goazen" eta "esandakoak kontuan hartuz bidea marraztea dagokigu orain. Horretan, kafe tertulian parte hartu dutenek lagunduko digutenaren zalantzarik ez dugu, beraz, eskerrak eman parte hartzaile guztiei eta Tolosatik hasita Euskal Herri osoan euskara eguneroko gure hizkuntza izan dadin, lanera!".

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagire

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGUROS  
BILBAO

Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin Eceizabarrena**

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**matilda**

zure moda osagaken denda

Korso Kalea, 3  
Tolosa





# Xabier Amuriza

## “Xalbador ideien, esateko moduen eta espresioaren jenioa da”

Xabier Amuriza bertsolaria berriro ere Tolosan izango dugu datorren urriaren 19an, ostiralean, Galtzaundi Euskara Taldea eta Lizardi Elkartearen elkarlanari esker. Iaz Lazkao Txikiren paperean aritu bazen ere, oraingoan Xalbadorren irudi eta bat-bateko bertsoak plazaratuko ditu “Xalbador. Bat-bateko mirakulua” ikuskizunarekin. Sarrerak Xirimiri, Orbela eta Galtzaundin eskuratu daitezke.

Naiara Roldán de Aránguiz

Iaz Lazkao Txikiren paperean aritu zinen, aurten ordea Xalbadorri dagokio tartea. Zer jasok du entzuleak?

Biltzen den entzuleak badaki soberan Xalbador eta Lazkao Txiki bi jenio izan zirela. Bi jenio oso ezberdinak, Lazkao Txiki bat-bateko sorgina zen eta Xalbador, bat-bateko mirakulua da. Bi

estilo oso ezberdinak dira. Xalbadorren aldetik, hizkuntzaren edertasuna, ideien originaltasuna, bat-bateko bertso harrigarriak entzungo dira. Lazkao Txiki umore jenialekoa bada, Xalbador ideien, esateko moduen eta espresioaren jenioa da.

Ez du horrek esan nahi emanaldia serioa izango denik, bai-

na estiloan eta gaien Xalbadorrena sakonagoa da, bertsoak hizkuntza eta espresio aldetik aberastasun eta indar ikaragarria dauka. Entzulea harriturik geratuko da saioarekin. Lazkao Txikirena sentimenduz, umorez eta ironiaz barrura sartzen den bezala; Xalbadorrena, espresio, dramatismo eta esateko moduen aldetik benetan inpakantea da.

Xalbadorrek gehiago harritzen nau bat-batekoetan bertso jarrietan baino. Entzungo dituzuen bertsoak, sorta asko hirukoak dira, bat-bateko bertsolaritza dira, gehienak txapelketetakoak; “Bat-bateko mirakulua”, alegia.

Emanaldi honek 2000. urtearen bueltan kaleratutako diskoan du iturria. Nolako izan zen prozesua?

Lehenik diskoa sortu zen.

Xalbadorrekin aspaldi nuen buruan, bertsolari baten bat-bateko ibilbidea nola laburtu daitekeen, bat-bateko bertsolaritza hain da zabala... Saioetan perla bat aurkitzeko agian, hainbesteok ez direnak entzun behar dituzu. Orduan selekzio bat egin beharra dago.

Xalbadorrena aspalditik nuen gogoan. Behin Euskal Kultur Erakundeko Daniel Landarti esan nion norbaitek lan hori ordaindu edo lagunduko balit gustura egingo nukeela. Plana aurkeztu eta Euskal Kultur Erakundeari oso interesgarria iruditu zitzaion; defendatu beharrik ez nuen izan, berehala eman zidaten baietza, eta lehen bilketa lana, selekzioa eta forma emateko lana egin nuen.

Selekzio estua egin behar da Xalbadorren bat-bateko bertsogintza guztia ehun eta hogeit bertsoetara ekartzeko. Horrela egin behar da, bestela ez dago bat-bateko bertsolaritza jarraitzerik. Ondoren, hasi nintzen saioak jende aurrean egiten. Batez ere lehen urtean egin nituen, entzuleak bat zetozen harrigarria zela Xalbador horrela selekzioa batean entzutea. Aspaldiko urteotan, nahiz eta Xalbador bera gaurkotasunetik ez den oraindik joan, gauzak ahaztu, utzi edo joan egiten dira, berriak sortzen dira... Horregatik asko estimatu nuen

Galtzaundik aukera hori ematea, orain hamar urte eta orain Xalbador beti aktuala eta ederra da.

Orain ordea, bestelako argitalpen baten atarian zaude, “Zazpi ebidentzia birjaiotzarako”; “Euskara batuaren bigarren jaiotza” saiakeraren jarraipena, alegia. Zer aurreratu dezakezu?

Urriaren 11n, Lasarten aurkeztuko dut. “Eskara batuaren bigarren jaiotza” hartan batzuetan frikzioa sortu zen, gauza eztabaidagarriak ere, debatea pizteko gogo... Orain jarraipen bat egiten dut, gauza sekundarioak eta gauza txikiak albora utzi eta gai eta korapilo zentrali heldu, zentratu eta ebidentzia modura ikusten ditudan ardatz nagusietara mugatu eta horiek defendatu eta argumentuekin liburuan aurkezten ditut.

“Euskara batuaren bigarren jaiotza” liburuaren jarraipena da baina jarraipen landuagoa, estuagoa eta eztabaidagarriak diren gauzak utzita; adostasun gehiago ere ekar dezake. Oraingoan oso lokalizaturik dago; zazpi ebidentzia horietara ekarrita egin dut liburua, ebidentzia bakoitza atal bat, kapitulu bat da. Ebidentzia horiek garatzen saiatzen naiz eta liburuaren haritik hitzaldi batzuk ere sortzen

baldira, gogoz joango naiz, jende aurrean debatitzera, eztabaidatzera eta hitz egitera.

Liburuak eztabaidatzeko aukera emango du...

Hori nahiko nuke, gai horiek debatitzea eta astintzea nahi nuke. Zenbait gaietan aurrerapausoak egitea, puntu garrantzitsuetan aurrerapausoak egitea - hiztegigintzan, lexikoan, sintaxian, ...-.





# Iñaki Arratibel eta Iñaki Kruz “Boluntario faltak kirol elkarteetan etorkizuna baldintza lezake”

Tolosa CFn eta Tolosaldeko Arraun Klubean (TAK) euskararen erabilpena sustatzeko hitzarmenak sinatu dituzte Tolosa CFko lehendakari Iñaki Arratibelek eta TAK-eko ordezkari Iñaki Kruzek Tolosako Udalarekin eta Galtzaundi Euskara Taldearekin. Sinatutako hitzarmena eta bi klubetako errealitatea izan dituzte hizpide, besteak beste, ondoko elkarrizketan.

Igor Mujika

**Euskararen erabilpena bultzatzeko zein pauso ematea lehenetsi duzue?**

**Iñaki Arratibel:** batetik, Galtzaundirekin batera, entrenatzaile euskaldunak bilatzeko kanpaina jarri genuen abian. Bi boluntario aurkeztu zaizkigu eta lanean jarri ditugu. Bestetik, gure langile bat euskaltegian euskara ikasten hasi da. Halaber, Galtzaundirekin eta Tolosako Udalarekin sinatutako hitzarmenean agertzen diren beste hainbat puntu ere epe motzean gauzatu nahi ditugu: Tolosa CF izatetik Tolosako Kirol Elkarte deitzera

pasako gara, dokumentuetan,... euskararen erabilpena bermatuko dugu,... Abenduan batzar berezia egingo dugu. Gure juntak, zuzendaritzak, aldaketa horiek egitea onartu du. Orain bazkideei dagokie gure erabakiak berrestea.

**Iñaki Kruz:** gure zuzendaritzak aztertu du hitzarmena eta, orain, etxera begirako ariketa egingo dugu zein hutsune ditugun aztertzeko. Besteak beste, umeei beti euskaraz egitea eta beraien arteko elkarrizketetan ere euskararen erabilpena sustatzea erabaki dugu. Gure komunikazio oro

euskaraz egitea ere adostu dugu. Izan ere, federazioarekin eta administrazioarekin izaten ditugun harremanetan gaztelarrera jotzeko ohitura dugu eta, gure nahia, komunikazio horiek ere euskaraz egitea da. Lehen lana, gure inguruan giro euskalduna sortzea da.

**Etxe barruan harrera ona izan du beraz hitzarmenak.**

**Iñaki Arratibel:** oso harrera ona izan du, bai. Begirale eta zuzentzaile erdaldunak ere baditugun arren, beraien jarrera oso positiboa da eta euskara menperatzen ez duten entrenatzaileen ondoan pertsona euskaldunak jartzea hobetsi dugu, ume eta gazteen artean euskararen erabilpena bultzatzeko. Gure errealitatea egun batetik bestera aldatzea oso zaila da. Garrantzitsuena, pausoak norabide onean ematea da.

**Iñaki Kruz:** gure taldean oso gustura hartu dugu euskararen erabilpena bultzatzeko egitasmoa. Euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenek ikastaro trinkoa egitea,... pentsatzen ari gara.

**Bi pertsona euskaldunek euren buruak aurkeztu dituzte Tolosa**

**CFn boluntario gisara aritzeko. Zer nolako harrera egin zaie?**

**Iñaki Arratibel:** begirale euskaldunak bilatzeko kanpaina oso interesgarria iruditu zitzaigun, bi arrazoiengatik: euskararen erabilpena modu naturalean bultzatzeko eraginkorra delako eta guri ere begirale eta boluntario berriak gerturatzea interesatzen zaigulako. Horregatik, oso harrera ona egin diegu.

**Iñaki Kruz:** gure arraunlarietako laguntzeko boluntarioak bilatzea zailagoa da. Futbola zer den, gutxi edo gehiago, denok dakigu. Arraunari buruzko ezagutzak, ordea, ez ditu pertsona orok eta, oraino, ez zaigu boluntario euskaldun berririk gerturatu. Boluntariorik agertuko ez balitz, guk entrenatzen ditugun gazteak kategoriatxikiagoetan dabilzanak entrenatzen hastea izan daiteke irtenbide bat.

**Federazioetan ere badago zerregina, ezta?**

**Iñaki Arratibel:** federazioetan asko dago egiteke. Futbolekoan, adibidez, nahiz eta dokumentuen titulua euskaraz jarri, mamia gaztelera lantzen dute. Ohitura txar asko daude. Esaterako, dokumentuak erdi



eginak daudelako, eta kopiatu eta itsastea euskaratzea baino errazagoa delako, “erderaz dago eta horrela utziko dugu”, egiten da sarri. Jende gazteagoa sartzenean, federazioetan ere euskarak irabazi egingo duela uste dut. Bitartean, ordea, kosta egingo da.

**Iñaki Kruz:** arraun munduan giroa euskalduna da, orohar. Kostako elkarte guztiak euskaldunak dira eta gure artean, normaltasun osoz, euskaraz egiten dugu. Federazioak antolatutako batzarretan, ordea, beti gaztelera jotzen dugu. Horren zergati nagusietarikoa, idazkariak erdaldunak direla da. Idazkariak bideratzen dituzte batzarrak eta, ondorioz,

denok gaztelera jotzen dugu, arraun taldeetako ordezkariak euskaldunak izan arren.

**Tolosako beste kirol elkarteak ere animatuko al zenituzkete hizkuntza irizpideak kontuan hartuz?**

**Iñaki Arratibel:** egun, jendarte guztia euskara bultzatzearen alde dago eta ez dut uste inongo klubek hitzarmena sinatzeko arazorik izango lukeenik.

**Kirol ikuspegitik, ikasturte berriko zein helburu dituzue?**

**Iñaki Arratibel:** gure lehenengo helburua, jende gaztea erakarri eta kirol munduan txertatzea da. Kirolari lotutako bizimodua erakutsi nahi diegu.





Baditugu beste helburu batzuk ere, ordea: eskubaloi taldeak liga irabaztea edo mailaz igotzea, esaterako. Eta, beste horrenbeste futboleant: erregionalean urte batzuk badaramazkigu eta, gure nahia, aurtent berriro 3. mailara igotzea da. Ikusiko dugu zer gertatuko den. Kirol indibidualei dago kienean, maila mantentzea eta jendea kirol heziketan sartzea da gure helburua.

**Iñaki Kruz:** gure lehentasuna ere gazteak hezitzea da. Aurten, gainera, ume asko hasi da arrauna ikasten eta arraunean banan-banan erakutsi behar zaielako, ez dugu lan faltarik izango. Hori da gure lehentasuna. Emaizak, gero etorriko dira. Erreferente bilakatu den emakume taldeari dagokionean, batzuek utzi egin

dute eta jende berria sartu da. Horregatik, gure helburua taldea trinkotzea da.

**Zenbat pertsonekin aritzen zarete lanean?**

**Iñaki Arratibel:** gu, egun, 500-550 neska-mutilekin ari gara lanean. Horiek guztiek fitxak dituzte. Horietaz gain, begiraleak, entrenatzaileak,... ditugu.

**Iñaki Kruz:** guk, federatuta, 150 lagun inguru izaten ditugu. Aurten, gainera, gazte asko hasi da arrauna ikasten.

**Hori guztia kudeatzea ez da ahuntzaren gau erdiko eztopia izango.**

**Iñaki Arratibel:** arazo handiena ardura ezberdinak beteko dituzten pertsonak topatzea da. Begirale, entrenatzaile, zuzenda-

ritzan,... lan egiteko pertsonak behar ditugu. Erreleboa ere bilatu behar da eta ardura horiek hartzeko prest dagoen jendea topatzea ez da erraza izaten. Lehengo gurasoek eta oraingoek duten jarrera ezberdina da. Kirol elkarteak biziko badira, umea kirola egitera bidaltzea bezain garrantzitsua da gurasoek ardurak hartzea, beraien seme-alabak kirola egiten ari diren elkarteetan lanean hastea.

**Iñaki Kruz:** erabat ados nago. Haur eta gazteekin lan egingo duten boluntarioak topatzeko zailtasunak ditugu guk ere.

**Boluntario faltak kirol elkarteetan etorkizuna baldintzatu al lezake?**

**Iñaki Arratibel:** TAK eta Tolosa CF-ren artean 700 gazte inguru

mugitzen ditugu. Halaber, saskibaloia, txirrindularia, pilota,... elkarteak daude. Orain arte boluntario lanetan ibili garenok noiz edo noiz gure ardurak utzi egin nahiko ditugu eta zeregin guztiak betetzeko adina boluntario topatzen ez badugu, nola kudeatuko ditugu gazte horiek guztiak? Kirol elkarteetan lan egiteko ez da beste munduko ezer jakin behar. Gogoia izatea, nahikoa da. Egund, esaterako, Berazubi berritzeko egitasmoa dugu eskuartean eta zeregin asko dago: logoa berritzea, webgune berri bat martxan jartzea, komunikazio lanak,... Umeak entrenatzeko, beste alor batzuetan laguntzeko,... gogoia duen edonori zabalduko dizkiogu ateak eta ez dugu sekula bakarrik utziko.

**Behobia-Donostia lasterketa helburu, jende asko ari da korriketan. Gomendiorik luzatuko al diegu?**

**Iñaki Arratibel:** Behobiako lasterketa ez da gutxietsi behar, maratoi erdia da eta bi mendate igo eta jeitsi egin behar dira. Hilabetez edo bi hilabetez soilik entrenatuta hogeita bi kilometro egitea ez da zuzenena. Lasterketa horretan parte hartzeko osasun arazorik ez dugula baieztatzea da lehen lana. Halaber, ongi elikatu behar da. Egundari dagokionean, egunerokotasunean egiten ditugun gauza berak egin behar ditugu: ongi gosaltzen badugu, ongi gosaltzen; ez badugu gosaltzen, ez gosaltzen,... Gauza guztietan garrantzitsuena, ordea, ongi entrenatzea eta bakoitzak bere eritmoak zeintzuk diren jakitea da.



**Txarli Gesteira**  
Blogaria  
txarli/berriketana.info

Euskaldunok, auzolanean hainbat aplikazio, erreminta edo webgune euskaratu ditugu. Hala nola, Firefox, Status.net, Whatsapp edo azkenetarikoa izan den Twitter, besteak beste. Noski, guk ez badugu egiten zeinek egingo du ba? Euskararen merkatua oso txikia da eta enpresek ez dute interesik hauek euskaratzen, beraz guri egokitzen zaigu askotan lan hau egitea. Oraingoan internetetik mugikorretara egingo dugu salto eta Android, mugikorrenzako sistema eragilea, euskaratuko dugu.

## Android euskaraz!

Esan bezala, Android (http://eu.wikipedia.org/wiki/Android) telefono mugikorrenzako sistema eragile bat da Linux nukleoan oinarritutakoa. Hasiera batean Google-k garatu zuen, baina gaur egun Open Handset Alliance elkarteak da garatzen duena. Elkarte honen helburua gailu mugikorrenzako estandare irekiak zabalzea da. Edozein garatzailek garatu ditzake Androidentzako aplikazioak, Apple, Symbian edo Windows mobilen ez bezala. Androiden kode gehiena "Apache" lizentzia libre eta irekian dago argitaratua.

Kuriositate modura, Androiden bertsio ezberdinei, gozonen izenak jartzen dizkiete: Cupcake, Donut,clair, Froyo, Gimbread, Honeycomb, Ice Cream Sandwich, Jelly Bean,...

Android euskaratzearena

ez da gaurko kontua ordea, Androidek gero eta erabiltzaile gehiago zituela ikusirik, 2007an Etxekoandroid izeneko talde bat sortu zen sistema eragilea euskaratzeko helburuarekin, baina ekimenak ez zuen aurrera egitea lortu.

Oraun dela gutxi berriro #androidEuskaraz proiektua martxan jarri du euskal komunitate txiki batek. Helburua, Android Jelly Bean 4.1.1., hau da, azken bertsioa ahalik eta arinen euskaratua izatea eta itzulpenak Google-eko proiektuan txertatu ahal izatea da.

Mugikor konpainia batzuk beraien berezko bertsioa euskaratu dute, honela, Samsung SIII (android sistema eragilea) eta Nokia (symbian sistema eragilea) euskaraz daude. Horregatik agian, talde honek android euskaratzeaz gain, konpainia

ezberdinei beraien Android bertsioak euskaraz jarri ahal izateko aukera izan dezaten eskatuko diete.

Euskaratze proiektua oraingoan, azaldu dutenagatik behintzat, talde txiki bati mugatua dago, itzulpen zehatzago eta txukunagoak lortuko dituztela uste dutelako. Hala ere, aurrerago jende gehiagoren laguntza behar izatea aurreikusten du taldeak, beraz adi!

Izan ere auzolanean oinarritutako proiektua da eta laguntza behar izatea posiblea da. Webgune bat jarri dute martxan (http://androideuskaraz.akinge.eu/blog/) bertan emango da #androideuskaraz inguruan emango dituzten pausoen berri.

Ea ba laster android sistema eragilea duten mugikorrek ere euskaraz ikusten ditugun.





## Galtzakomik, Euskal Herrira zabalik

Kike Amonarrizek –Galtzakomikeko epaimahaia-, Dani Fanok –komikigilea- eta Amaia Doyaguek –Galtzakomikeko antolatzailea- Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketa Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean aurkezteko ardura hartu dute. Aurkezpenaren helburua lehiaketaren mugak zabaltzea da, Amonarrizen hitzek honela diote: “Tolosaldetik eta Gipuzkoatik kanpo ere euskarazko komikigintzan ari direnak animatu nahi ditugu, Galtzakomik erakusleho gisara ikus dezaten”.

Erredakzioa



Amaia Doyaguek ideia berari heldu eta ondorengo zehaztu nahi izan du: “Galtzaundi Komiki Lehiaketak ate bat zabaldu nahi du eta erakusleho bat izatea gustatuko litzaiguke. Euskarazko komikiak egiten dituzten egileei bere lanak erakusteko aukera bat ematen zaie eta komikigintzan interesa duen edonork hemen du erakusleho; egile berriak ezagutzeko, komikiak argitaratzeko, liburuak ilustratzeko eta aldizkari eta


egunkarietan kolaborazioak egiteko”.

Aurkeztutako lanen kalitatea ere goraiatzea helburu izan dute hizlariek. “Oso maila oneko lanak aurkeztu dira. Oso estilo eta genero diferenteko komikiak; mangak, poetikoak, istorio beltzak...”. Horrek, Amaia Doyagueren hitzetan, “goi mailako epaimahaia” –Jose Luis Longaron, Iñaki Epelde, Joseba Antxustegiartxe, Juanba Berasategi eta Kike Amonarriz- lana

zaildu egiten du. Hala ere, lanak baloratzeko orduan kontutan hartu beharreko irizpideak argi dituzte epaimahaikideek: istorioaren originaltasuna, bizitasuna, idazmena, marrazketarako erabili den materiala eta teknika.

Baina honetaz guztiaz gainera, Galtzaundi Euskara Taldearen ekimena izanik, arreta berezia eskaintzen zaio arlo linguistikoa-ri. Kike Amonarrizek euskararen erabilpena azpimarratu nahi izan du: “istorioak berak badu garrantzia, nola kontatzen den eta erabiltzen den hizkera. Euskara talde izanik eta helburuetako bat euskararen lanketa izanik, hizkuntzdundak izan behar dute istorioak”.


Ibarra Galtzakomik Komiki Lehiaketaren V. edizio honen helburu nagusia “Euskal Herriko komikigintza berriaren erreferentzia nagusietako bat izatea da”. Euskal komikigileek argitaratzeko dituzten arazoak kontutan harturik, honako lehiaketa erakusleho bihurtuko dela zalantzarik ez du Amaia Doyaguek: “euskarazko komikigileek ez dute non argitaratu, beraz ez da batere harrizkoa lehiaketak duen arrakasta”.

Arrakastarako giltza orain parte hartzaileen esku geratu da. Izan ere, azaroaren 23a bitartean lanak aurkezteko epea zabalik izango dute komikigileek. Guztira 1.600 euro sarietan, Saure argitaletxearen 32 komiki, Tamayo etxearen marrazketarako materiala eta Mahala baserriko produktuen lau saski banatuko ditu Galtzakomik V. edizioak. 

## Nestor Basterretxea Durangoko Azokaren kartelaren egile

Nestor Basterretxea artista bermeotarrari eskatu dio Gerediaga elkarteak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren 47. edizioko kartela egitea. Teknika berria erabiliz kartel moderno landu du Basterretxeak.

Erredakzioa



Txelu Angoitia. Gerediaga Elkarteak

Nestor Basterretxeak, bost hamarkadatan artearen adierazpide anitzak jorratu dituen artista, eta Aiert Goenaga Durangoko Azokaren zuzendariak aurkeztu dute 2012ko Durangoko Liburu eta Disko Azokaren kartela.

Basterretxeak azaldu duenez, telebista pantaila matxuratzen denean agertzen den “kolore aberastasun ikaragarria” da karteleko irudiaren oinarria. Azken aldian pantailako forma eta kolore horietan oinarrituta dihardu bere collage erako lanak egiten.

Gerediagaaren proposamena kartel moderno bat teknika berri batekin egiteko aukeratzat

ikusitu zuen Basterretxeak. Antolatzaileen lana nabarmendu du artistak: “bihotzez, azoka antolatzeke egiten duzuen lana eskertzea baino ez dagokit”.

Bastoiarekin eskuartean, hitz bakoitza patxadaz, lasaitasunez pentsatuz eta ahoskatuta hitz egin du Basterretxeak. Oteiza aipatu du, eta euskal nortasunari buruzko adierazpenak ere egin ditu. “88 urte dauzkatz, eta heriotzan pentsatzen dut. Baina borrokatzen jarraituko duzuela jakinda noa beste mundura. Eskerrik asko”.

Egun bat gutxiago

Aiert Goenagak azaldu duenez, azken urteetako kartel lehiaketa alboratu eta Durangoko Azokaren kartela artista bati enkargatu nahi izan diote aurten.

Bestalde, iaz baino egun bat gutxiago iraungo du Durangoko Azokak, lau, abenduaren 6tik 9ra. Aurrekontua aipatu du zuzendariak: “krisi ekonomikoak guri ere eragiten digu, eta ezin dugu bost eguneko azoka baten aldeko apustua egin, kalitatean galduko genuelako”.



Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisolasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com



Informazioa Zerkitatzen

Ordezkapenak eta konpainien

Esperak eta partekatutako

Marturienak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113




Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038



## irakurri entzun Ikusi

Etxekalte  
Harkaitz Zubiri



Anaitasuna enpresa ez da bil ondo. Kontuak zehazki nola dauden inork ez daki, baina arazoak eta zurrumurruak zabaldu direnez gero, lorrintzen ari dira langileen arteko harremanak. Bizitza gutzatuak kontatzen ditu Harkaitz Zubiriren nobelak. Krisi ekonomiko eta sozial garaian krisi pertsonal eta intimoetan trabatu direnek ihes egin nahi diote porrot gordinari, kosta ahala kosta.

Hiriaren taupadak  
121 Krew



121Krew taldearen, "Hiriaren Taupadak" izenburupean eta MusikHerría disketxearen bitartez, orain dela hamabi urte hasitako ibilbidean aurrerapausoa suposatzen duen lana. Rap-a jorratzen duen talde barakaldar hau, hitzen aldetik, inguruan bizi duten egoera bereriztat mintzo da.

Leku hutsak, hitz beteak  
Joxeanjel Arbelaiz Irastortza

Esaera zahar baten arabera, "soineko guziek badute beren ifrenzua". Hori go-goan, Bernardo Atxagak bere nobela eta poemen sorburua azaltzen du dokumentalean, haien ifrenzua. Lagun ditu Juanfe Garcesen irudiak.

# hitzorduetak

Urriaren 5etik 19ra bitarteko

## Antzerkia

**Goenkale.** Urriak 5, ostirala. Glu-Glu produkzioak. Tolosa, Leidor. 20.30

## Kontzertua

**Doctor Deseo.** Urriak 6, larunbata. Tolosa, Leidor. 21.00

**Eratu eta Enkore.** Urriak 5, ostirala. Tolosa, Bonberenea. Eratu eta Enkore taldeak izango dira Bonbereneako oholtza gainean. Eratu taldea duela urtebete Bonberenean izan zen disko berria aurkezten. Enkore taldearen lehen aldia izango da Bonberenean. Gaztea Sariaren finalerako sailkatu zen, egun biran buru belarri dabilta.

**Rat-zinger eta Porko Bravo.** Urriak 6, larunbata. Rat-zinger eta Porko Bravo taldeak izango dira Bonberenean. Rat-zinger taldea Bilbotik dator eta punk eta rock doinuak ekarriko ditu. Porko Bravok ere gauza bera egingo du, beraz, punk rock gau gogorra!

## Hitzaldi-Tailerra

**Proposamen ekofeministak, zorrez jositako sistema baten-tzat.** Urriak 6, larunbata. Yayo Herrero. Ecologistas en Acción

taldeko koordinatzailea. Jabe-kuntza eskolak antolatuta. Tolosa, Kultur Etxea. 10.00

**Nazioarteko politika.** Urriak 8 eta urriak 15, astelehenak. Jesus Torquemada nazioarteko politika analistak eskainita. Tolosaldean Ikastnek antolatuta. Tolosa, Topic. 19.00

**Sukaltalka sukaldaritzatailerria.** Urriak 10, asteazkena. Sukaldaritzakardio-osasuntsu ikastaroa. "Osasuna elikatu" programaren baitan. Roberto Ruizek Fronton jatetxeko sukaldariak eskainiko du. Asuncion klinikak antolatuta.

## Kirola

**Zintzur jaitsiera.** Urriak 13, larunbata. Bost orduko ikastaroa, gutxienez sei laguneko taldea beharrezkoa. Abaltzizketako Txindokiko Itzalan.

## Jaiak

**San Mielak.** Urriak 14, igandea. Meza nagusia, bazkaria zaharren biltokian, jubilatuta eta pentsiodunentzat eta ondoren musika. Irura.

**Berazubiko jaiak.** Urriak 11-14. Tolosa, Berazubi.

**Ugarte. Errosarioko Amaren jaiak.** Urriak 5-7. Urriak 5, ostirala. Suziriak, kanpaiak eta poteoa trikitilarietara afaria aurreratik, herri afaria Ugarteko kutixiekin, Ostolaza eta Andonegi trikitilariak eta atsedena-

dian Toka txapelketa. Urriak 6, larunbata. Gazteen pilota partidak, puzgarriak, zaldiekin ibilaldiak Ugarten zehar eta txokolate beroa, zahagi ardoa eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak. Urriak 7, igandea. Meza Nagusia Errosarioko Amaren Omenez, txakolin dastaketa Laja eta Landakanda trikitilarietara alaiturik, herri kirolak,



Ingurutxo, sagardo dastaketa eta Laja eta Landakandarekin emango zaie amaiera Ugarteko jaiak.

## Zikloia

**Vademekun.** Urriak 14, igandea. Debote enboret eskainitako Zirko ikuskizuna. Tolosa, Berazubi. 18.00

**De allá.** Urriak 19, ostirala. Jhon Ardila narratzaile komikoak eskainitako saioa. Tolosa, Kikara taberna. 23.00

## Bertsolaritza

**Errimak oinetan.** Urriak 19, ostirala. Bertsolaritzan oinarritutako dantza saioa. Tolosa, Leidor. 20.30

**Xabier Amuriza, Xalbadorren paperean.** Urriak 19, ostirala. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. Tolosa, Lizardi elkartearen. 21.00

## Euskal Jaia. Anoeta

**Urriak 13, larunbata.** 17.30ean Segi ikastaroa Arozetxe baserriko zelaian eta iluntzean txekorra erretzea.

**Urriak 14, igandea.** Herriko txistularien kalejira; eskualdeko baserriar eta artisauen azoka plazan, dultzaineroek eta Donostiako joaldunek alaiturik; euskal jantzien erakusketa; jaiaren aurkezpena txalapartariekin, dantzarietara eta Loatzoko musika eskolako txarangarekin; postu politenaren sari banaketa; ardo dastaketa; baserriko produktuen saskiaren zozketa; herri bazkaria frontoian; talo tailerra umeentzako; soka-tira saioa; Anoetako dantza taldearen emanaldia eta talogileak eta lzer eta Alabierren erromeria.

## langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Sistema eragilea (Windows), informazioa bilaketa: Internet	2012.10.15	30
Intranet eta posta elektronikoa	2012.10.15	30
Txirbil harroketara bidezko prozesuen mekanizazioa (tornua)	2012.10.08	80
Planoen interpretazioa soldaketan	2012.10.15	60
Automatismo elektrikoaren muntaiak eta konponketa (koadro elektrikoak)	2012.10.22	60
Klimatizazio instalazioen konfigurazioa eta kalkulua	2012.10.15	40

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 5</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 10</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Astelehena, 15</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Larunbata, 6</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Osteguna, 11</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Asteartea, 16</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Igandea, 7</b> Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	<b>Ostirala, 12</b> Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa	<b>Asteazkena, 17</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
<b>Astelehena, 8</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Larunbata, 13</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Osteguna, 18</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
<b>Asteartea, 9</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Igandea, 14</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Ostirala, 19</b> Olarreaga M. (M.J.Iraola, 10) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asuncion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com

**NISSAN**

**SANTA  
LUZIA  
GARAJEA**

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa



## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakaste tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

### Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegieta 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldia, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 6 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitateko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

### Salgai

• Akazia hesolak saltzen dira, barrutiak ixteko. 646 52 47 96 (Peio)

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

# Horoskopoa

Urriaren 5etik 19ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Kreatibitatea lantzeari dagokionez, oso aktiboki arituko zara. Sentimendu alde-rik ordea, garai ameslarian murgildurik zaude. Disfrutatzeke unea dela esan beharra dago, jarrera alai batek energia ahalbidetuko dizu.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Seduzitzeke duzun ahalmenak ate bat baino gehiago irekiko dizu. Zaila suertatu bazaizu ere, inguruko jendearekin konplizitatea lortu duzu. Harremanek sorpresa bat baino gehiago ekarriko dizute.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Hitz egiten hasi baino lehen pentsatzea beharrezkoa izaten da. Komunikatzeko moduak aldatu beharko zenituzke, ingurukoek eskertu egingo dizute.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Eskaintza ekonomikoa jasoko duzu, aldekoa dela iruditu arren, ondo aztertu eta negoziaketa lasaian murgildu beharko zinateke. Erabakia hartzeko garaian zure independentzia defendatu beharko zenuke.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Espero ez duzun topaketa bat izan eta bizitza hankaz gora jarriko zaizu. Aukera gehiago eta hobeak dituzu. Gizarte harremanetan une goxoak biziko dituzu.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Datozen egunotan zure burua zaintzea erabakigarria izango da. Estresa sortzen dizkizuten egoerak saihestu beharko zenituzke. Garai bateko arazoa konpondu ahal izateko guztia zure alde duzu.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Kolaborazioak protagonista izango dira datozen egunotan, profesionalak zein pertsonalak. Senari kasu egitea da egin beharrekoa. Aldaketa garai batean murgiltzera zoaz.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Egiteke dagoena amaitzeko garaia da, ezustekorik jaso nahi ez bada behintzat. Ospakizunak datoz eta horrek orain arteko larrialdia arinduko du. Iritzia gortzeko gutxirako balio izaten du.



## sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21

Negoziaketa garaia, horregatik garrantzirik ez duena une batez alboratu beharko duzu. Ideiak argi izanez gero, gauzak nahi bezala aterako dira. Zortea aldeko duzu, baina xehetasunei erreparatu beharko zenieke.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Gogoz aritu beharko zara, lotsatuko zaituzten sekretuak agerian geratu ez daitezten. Harremanen inguruan duzun ikuspegia erabat aldatuko duzu. Gustura sentiarazten zaituena egin beharko zenuke.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Bikote harremanean elementu baiko-rrak sartzeko unea, baina biderik moztzen hartu gabe. Intuizioa lan honetan bidelaguna izango duzu. Okerrak zuzentzeko garaia da. Esperientzia berriak bizitzeko beharrez zaude.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Dagozkizun konpromiso eta erantzukizunak onartzeko prest bazaude, aurre-rapauso garrantzitsua egingo duzu. Lanarekin harremana duen orok energia eskainiko dizu.



## Luis Goikoetxea: "Mondejuak ardi produktua behar du"

Sukia Harategia, mondeju eta odolkieta espezialista

Azken 25 urteotan Sukia Harategiaren aurpegi da Luis Goikoetxea. Ugartearra, harakina eta mondeju eta odolkieta trebea. Tolosako Korreo kaleko 44. zenbakian kokaturiko denda eraberritu eta modernoan, etxean tradizioari jarraia egindako mondeju eta odolkiak dira protagonista.



### Sukia Harategiak Tolosaldean mondeju eta odolkieta tradizioa eta izena du. Zer nolako historia dago atzean?

Mutil koxkor gaztetik, 15 urte nituela, hasi nintzen Sukia Harategian. 18 urterekin martxa egin nuen, urte batzuetan inguruko herrietan harakintzan ibili nintzen. 30 urterekin bueltatu nintzen berriro Sukiara. Ordurako Jose Mari eta Jose Antonio Sukia, bertako jabeak, Zaldibikoak, mondejuarekin hasiak ziren. Ugarte-Amezketakoa naiz, mondejua bertakoa dugu, guk esaten dugu "mondejua gurea dela". Horregatik segimendua eman diot produktu berezi honi. Baserritik sortutako tradizioa da. Tolosan mondeju eta odolkiak egiteko tradizioa bazegoen baina ohitura gehien bat herri txikietan zegoen; Ugarten, Bedaion...

### Zer dute Sukiako mondejuek horren eza-gun izateko?

Nik Ugarte-Amezketakoa estilora egiten dut. Mondejua milaka erara egin daiteke. Hemen ardikiakin egiten dugu, ardi-seboa, ardi-tripakia erabilia. Oinarrizko basea hori da. Merkatuan saltzen ari den mondeju asko "berdurarekin egindako tortilla" dela

da. Duela 15 urte grasa gehiago sartzen genuen baina garaiak aldatzen dira. Grasa pixka bat behar du, baina mondejuak ardiki gustua izan behar du.

### Mondeju garaian sartu berri gara, noiz arte luzatzen da?

San Miguel inguruan hasten da eta guk apirila arte luzatzen dugu. Guretzako salmentarik politenak urtarrila eta otsailean izaten dira; hotza eta neguarekin batera, eguraldi aproposa izaten da. Santu Guztien egunaren bueltan salmenta ona izaten da, ohitura handia dago Tolosa inguruan, herri askotan, mondejua eta odolkia jateko. Babarrunaren etorrerarekin odolkiak ere gora egiten du. Mondejuarena orain izaten da garairik aproposena, ardiki orain izaten da ona eta.

### Tolosaldean kanpo oihartzuna izaten du mondejuak?

80. hamarkadan Donostiako Antiguoz auzoko harategi batean aritu nintzen, mondejuak hemendik eramaten nituen, mostradorean jarri eta %80ak ez zuen ezagutzen. Orain zabalduago dago. Hala ere, eskea ez da hemendik gehiegi ateratzen. Kanpora ere bidali izan ditut; Jose Maria Aristrain, Parisen bizi zen Goierriko ospetsuari bidaltzen zitzaizkion. Miarrizera helikopteroz etortzen zen, eta mondeju kapritxoak zuenean deitu izaten zuten. Baina bezera orokorrean bertakoa da; produktua ezagutzen duena, produktua zer den dakiena.

## Bertso-afaria, Xabier Amurizarekin

# "Xalbador, bat-bateko mirakulua"

Xalbadorren bat-bateko bertsoak kantatu eta garai hartako testuinguruan kokatuko ditu Amurizak.

urriak 19 ostirala, 21:00etan,  
Lizardi elkartearen.  
25 euro



V. IBARRA

# GALTZAKOMIK

KOMIKI LEHIAKETA 2012



## SARIAK

18 URTETIK GORA:

12 URTETIK 18 URTERA  
BITARTEAN:

12 URTETIK BEHERA:

**Lehenengoa:**

600 € eta argitalpena

**Bigarrena:**

400 €

**Aipamena:**

marrazketarako materiala  
+ komiki bilduma bat

**Lehenengoa:**

400 €

**Bigarrena:**

200 €

**2 Aipamen:**

komiki bilduma bana

**Lehenengoa:**

komiki bilduma bat eta  
marrazketarako materiala

**4 Aipamen:**

komiki bilduma bana

PARTE HARTZAILEEN ARTEAN MAHALA BASERRIKO PRODUKTUEN 4 SASKI ZOKKETATUKO DIRA.

Oinarriak eta informazioa:

<http://galtzakomik.blogspot.com.es/>

[www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)

[kultura@galtzaundi.com](mailto:kultura@galtzaundi.com)

943 655 004

Antolatzailea



Laguntzailea



Babesleak

